



EBAZPENA, 2021EKO UZTAILAREN 5EKOA, HEZKUNTZA SAILBURUORDEZAKO IKASTETXEEN ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIENA, DANTZA ETA ARTE DRAMATIKOKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZETAN 2021-2022 IKASTURTERAKO MATRIKULATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN 2021EKO EKAINAREN 26KO EBAZPENA ALDATZEN DUENA.

2021eko ekainaren 26an argitaratu zen Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren 2021eko ekainaren 26ko Ebazpena, Dantzako eta Arte Dramatikoko araubide bereziko goi-mailako arte-irakaskuntzetarako matrikulazio-prozedura arautzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 2.2 artikulua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituenak, 2014ko ekainaren 3ko, 2015eko uztailaren 9ko, 2016ko maiatzaren 16ko eta 2018ko maiatzaren 16ko Aginduek egindako aldaketekin, ezartzen du Musika Kontserbatorio Profesionaletako eta «Dantzerti» Euskadiko Arte Dramatikoko eta Dantza Goi Mailako Eskolako ikasle ofizialen matrikulagatik, prezio publikoen ordainketa antzeko hiru epetan ordaindu ahal izango direla: lehenengoa matrikula egitean, bigarrena abenduko lehenengo astean, eta hirugarrena otsaileko lehenengo astean.

Aipatutako ebazpenaren edukian akatsak daudela hautemanda, Dantzako eta Arte Dramatikoko araubide bereziko goi-mailako arte-irakaskuntzen matrikulazioari dagozkion prezio publikoak ordaintzeko epeak zehazteari dagokionez, beharrezkoa da dagokion aldaketa argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Artikulua bakarra.- Dantzako eta Arte Dramatikoko araubide bereziko goi-mailako arte-irakaskuntzetarako matrikulazio-prozedura arautzen den Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren 2021eko ekainaren 26ko Ebazpena aldatzea.

Aldatu egiten da seigarren artikulua 2. atala, eta honela idatzita geratzen da:

« 2.2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren 2.2 artikuluan xedatzen den bezala, prezio publiko horien zenbatekoa aldeztu aurretik ordaindu beharko da matrikulatzeko unean, ordainketa hori egiteko epea eta modua adieraziz.

Hala ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egiten dituzten ikasleentzat, aipatutako araudiak aukera ematen du matrikula-prezioak ordainketa bakar batean ordaintzeko, bai matrikula egitean, bai hiru ordainketa berdinetan zatituta. Ordainketa horietatik lehen matrikula egitean egingo da, bigarrena abenduko lehen astean eta hirugarrena otsailaren lehen astean.»



Azken xedapen bakarra.-Ondorioak.

Ebazpen honek Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzen denetik aurrera izango ditu ondorioak. Web-orri horretan ikusgai egongo da, harik eta deitutako prozedura amaitu eta hura gauzatzearen ondoriozko errekurtso-epreak igaro arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 5a

Eugenio Jiménez Ibañez

IKASTETXEEN ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA